# LANERAKO ARROPA ETA OINETAKOAK – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

## Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| **KONTRATUAREN XEDEA:** | **KONTRATUAREN XEDEA:** |
| Kontratu honen helburua da lanerako arropa eta oinetakoak lortzea, ingurumen-kalitateari dagozkion gutxieneko irizpide batzuekin. | Kontratu honen helburua da lanerako arropa eta oinetakoak lortzea, ingurumen-kalitateari dagozkion gutxieneko irizpide batzuekin. |
| **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** | **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** |
| **Laneko arroparen formaldehidoa**<br><br>1. Azkeneko ehunkiaren formaldehido askearen eta partzialki hidrolizagarriaren kantitateak ez du 75 ppm-tik gorakoa izan behar larruazalarekin zuzeneko kontaktuan dauden produktuetan, hala nola 300 ppm-tik gorakoak gainerako produktuen kasuan, EN ISO 14184-1en edo baliokideen arabera.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1., 2. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Laneko arroparen formaldehidoa**<br><br>1. Azkeneko ehunkiaren formaldehido askearen eta partzialki hidrolizagarriaren kantitateak ez du 75 ppm-tik gorakoa izan behar larruazalarekin zuzeneko kontaktuan dauden produktuetan, hala nola 300 ppm-tik gorakoak gainerako produktuen kasuan, EN ISO 14184-1en edo baliokideen arabera.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1., 2. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Arroparen kalitatea eta iraunkortasuna** | **Arroparen kalitatea eta iraunkortasuna** |

| | |
|---|---|
| 2. Produktuak ez ditu gaindituko ondorengo aldaketa-balioak garbitzen eta lehortzen direnean, ISO 5077 arauak edo baliokideek ezarritako metodoen arabera:<br>– % 6 (irazkia eta bilbea), gainerako ehunkien kasuan,<br>– % 8 (luzera eta zabalera), puntuzko gainerako ehunkien kasuan,<br>– % 8 (luzera eta zabalera), gainerako kizkur-ehunen kasuan.<br><br>Irizpide hori ez zaie aplikatuko etiketan modu argian lehorrean garbitu behar direla adierazten duten produktuei (produktu horiek etiketa-mota horiek izatea arrunta den heinean).<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.a eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>3. Produktuak koloreen finkotasun-balio hauek izan beharko ditu, ISO 105 arauak edo baliokideek ezarritako metodoen arabera:<br>– garbitzean: 3-4 maila<br>– transpirazioan: 3-4 maila<br>– igurtzi hezean: 2-3 maila<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | 2. Produktuak ez ditu gaindituko ondorengo aldaketa-balioak garbitzen eta lehortzen direnean, ISO 5077 arauak edo baliokideek ezarritako metodoen arabera:<br>– % 6 (irazkia eta bilbea), gainerako ehunkien kasuan,<br>– % 8 (luzera eta zabalera), puntuzko gainerako ehunkien kasuan,<br>– % 8 (luzera eta zabalera), gainerako kizkur-ehunen kasuan.<br><br>Irizpide hori ez zaie aplikatuko etiketan modu argian lehorrean garbitu behar direla adierazten duten produktuei (produktu horiek etiketa mota horiek izatea arrunta den heinean).<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>3. Produktuak koloreen finkotasun-balio hauek izan beharko ditu, ISO 105 arauak edo baliokideek ezarritako metodoen arabera:<br>– garbitzean: 3-4 maila<br>– transpirazioan: 3-4 maila<br>– igurtzi hezean: 2-3 maila<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Oinetakoen kalitatea eta iraunkortasuna**<br><br>4. Ondorengo ezaugarriak errespetatuko dira, CEN TC 309 WI 065-4.9 edo antzeko metodoen arabera:<br><br>– Oinbularrak urradurekiko gogorrak izatea:<br>larrua: ≥ 60<br>Beste material batzuk: > 0 40 | **Oinetakoen kalitatea eta iraunkortasuna**<br><br>4. Ondorengo ezaugarriak errespetatuko dira, CEN TC 309 WI 065-4.9 edo antzeko metodoen arabera:<br><br>– Oinbularrak urradurekiko gogorrak izatea:<br>larrua: ≥ 60<br>Beste material batzuk: > 0 40 |

| | |
|---|---|
| – Zolak urradurekiko gogorrak izatea (urradurekiko batezbesteko indarra):<br>U-rentzat ≥ 0,9 g/cm$_3$ (U: urradura): 6<br>U-rentzat < 0,9 g/cm$^3$: 4<br>– Oinetakoen barruko aldearen kolorea ez aldatzea (gris-eskala 50 aldiz garbitu ondoren) ≥ 2/3<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | – Zolak urradurekiko gogorrak izatea (urradurekiko batezbesteko indarra):<br>U-rentzat ≥ 0,9 g/cm3 (U: urradura): 6<br>U-rentzat < 0,9 g/cm3: 4<br>– Oinetakoen barruko aldearen kolorea ez aldatzea (gris-eskala 50 aldiz garbitu ondoren) ≥ 2/3<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 4.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| | **Substantzia toxikoak azken produktuan**<br>5. Eskainitako artikulu desberdinen gutxienez % 50k egon behar du egina % 100ean Oekotex 100 ziurtagirian edo baliokideetan zehaztutako azken produktuan agertu beharreko substantzien baldintzak betetzen dituzten zuntzekin [1].<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 2.a, 6.arekin eta 7.arekin batera (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** | **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** |
| **Lanerako arropa eta oinetakoak, gehienez 15 puntu**<br>5. Eskainitako produktuaren zuntzetan, Oekotex 100 ziurtagirian edo baliokideetan zehaztutako azken produktuan agertu beharreko substantzien baldintzak betetzen dituzten zuntzen | **Lanerako arropa eta oinetakoak, gehienez 20 puntu**<br>6. Oekotex 100 ziurtagirian edo baliokideetan zehaztutako azken produktuan agertu beharreko substantzien baldintzak betetzen dituzten zuntzekin % 100ean egindako artikuluen edukiaren |

[1] Erosketa artikulu bakarrekoa bada, administrazioak baloratu beharko du ea eskatzen duen horrek Oekotex100en irizpideak betetzea edo adjudikazio-irizpideetan bakarrik baloratzen duen. Maila aurreratua izanda ere, hori nahitaezkoa izatea gomendatzen da.

| | |
|---|---|
| edukiaren portzentajea baloratuko da pisuan (gehienez 5 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 2.a, 6.arekin eta 7.arekin batera (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>6. Eskainitako produktuan zuntz-edukiaren edo osagai birziklatuen portzentajea baloratuko da pisuan. Horri dagokiola, zuntz birziklatutzat hartuko dira, ekoizpen hondakinetatik, ehungintza eta jantzigintza industriaren ebakinetatik edo kontsumo ondorengo hondakinetatik eratorritakoak (gehienez 5 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 5., 6. eta 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>7. Eskainitako produktuan nekazaritza ekologikotik eratorritako zuntz naturalen edukiaren portzentaia baloratuko da pisuan, Europar Batasunean finkatutako estandarren arabera [834/2007 (EE) Araudia], Estatu Batuetakoaren arabera [Nekazaritza Saileko (USDA) National Organic Programen (NOP) arabera) edota IFOAM erakundeak edo baliokideek nazioartean ezarritako estandarren arabera (gehienez 5 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2. (Beltxarga Zuria bakarrik) eta 3.a, 5.arekin, 6.arekin eta 7.arekin batera (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | portzentaje handiena baloratuko da (gehienez 5 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1. eta 2.a, 6.arekin eta 7.arekin batera (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>8. Eskainitako produktuaren zuntz edukiaren edo osagai birziklatuen portzentajea baloratuko da pisuan. Horri dagokiola, zuntz birziklatutzat hartuko dira, ekoizpen hondakinetatik, ehungintza eta jantzigintza industriaren ebakinetatik edo kontsumo ondorengo hondakinetatik eratorritakoak (gehienez 5 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 5., 6. eta 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>9. Eskainitako produktuan nekazaritza ekologikotik eratorritako zuntz naturalen edukiaren portzentaia baloratuko da pisuan, Europar Batasunean finkatutako estandarren arabera [834/2007 (EE) Araudia], Estatu Batuetakoaren arabera [Nekazaritza Saileko (USDA) National Organic Programen (NOP) arabera) edota IFOAM erakundeak edo baliokideek nazioartean ezarritako estandarren arabera (gehienez 5 puntu).<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2. (Beltxarga Zuria bakarrik) eta 3.a, 5.arekin, 6.arekin eta 7.arekin batera (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>10. Eskainitako produktuaren zuntzetan, Europako Etiketa Ekologikoan, Beltxarga Zurian edo baliokideetan zehaztutako produktu kimikoen eta ehun-zuntzen irizpideak betetzen dituzten zuntzen edukiaren portzentajea baloratuko da pisuan (gehienez |

| | |
|---|---|
| | 5 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.a 7.arekin (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

| EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*): | |
|---|---|
| 1. Ekoetiketak … | 5. Deskribapena |
| 2. Estandarrak … | 6. Fitxa teknikoa |
| 3. Nekazaritza ekologikoko zigiluak: EU, Krav, Skal, IFOAM, IMO, KbA, OCIA, TDA… … | 7. Fabrikatzailearen adierazpena |
| 4. Laborategiko testa edo txostena | 8. Lizitatzailearen adierazpena |
| *(*) Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argienean bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.* | |

**OHARRAK:**

*Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, fabrikatzean eta biltzean erabilitako substantzia arriskutsuekin lotutako baldintzak ere adieraztea interesgarria izan daiteke.*

*Informazio gehiago nahi izanez gero,* ***www.ihobe.eus*** ***webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala*** *kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:*

- *Tel.: 94 423 07 43*

- *Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus*